ELKANO Euskadi around the world, again

PRENTSA OHARRA

2018/12/13

Munduaren inguruko Lehen itzulia gaurko gizartea berriz pentsatzeko inspirazioa eta erreferentzia izatea da Elkano Fundazioaren nahia.

2019-2022 eperako programazioaren zati bat aurreratu du, lankidetza-sareak sortuz garatuko duena, eta helburu garbi bat du: etorkizunerako ondarea uztea.

Ezagutza historikoa landu eta ikertzea egungo gizartearen erronkak aztertu eta aintzat hartzeko, eta baita eredu sozio-ekonomikoak birpentsatzeko ere. Era berean, Elkanoren figura historikoa, munduaren inguruko lehen itzulia eta bere ondorioak nabarmendu nahi dira. Horiek dira hurrengo 3 urteetarako Elkano Fundazioak zehaztu duen lan egitasmoaren helburuak; eta horiek aurkeztu dituzte gaur prentsaurrekoan Fundazioko lehendakari eta Getariako Alkate Nikanor Lertxundik, Gipuzkoako Diputatu Nagusi Markel Olanok, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailburu Arantxa Tapiak eta entitateko zuzendari Ion Irurzunek.

Ion Irurzun zuzendariak azaldu du Fundazioak lankidetza sareak egituratuko dituela, bai bertakoak eta baita nazioartekoak ere, proiektu bakoitza garatu eta gauzatzeko. Entitatea behin behinekoa dela ere nabarmendu du -2022an desegingo da-, baina gizarteari ondare bat utzi nahi dio kulturaren, ekonomiaren eta gizartearen garapenari lotuta. Helburu horrek zehaztuko ditu entitateak abian jarriko dituen proiektuak.

Fundazioko lehendakari Nikanor Lertxundiren hitzetan “orain 500 urte euskaldunak ilargian izan ginen”. Izan ere Lurraren lehen zirkumnabigazioa burutzean Juan Sebastian Elkanok lortu zuen balentria ilargia zapaltzearekin parekagarria da: “aldaketa garrantzitsuak eragin zituen gizaterian, gizartearen eta historiaren garapena aldatuz” hainbat arlotan, hala nola industrian eta ontzigintzan, elikaduran, nazioarteko merkataritzan edo pentsamenduan eta kulturan.

Hain zuzen ere eraldaketa eremu horien inguruan ari dira egituratzen urteurrenaren edukiak, Markel Olano eta Arantxa Tapiak aurreratu dituztenak, biak ere Elkano Fundazioko patronatuko kideak.

Ezagutza sortzea

Diputatu Nagusiak azaldu duenez "jakin-mina sortzeko bokazioarekin sortu eta lan egiten du Fundazioak; Elkanori eta burutu zuen balentriari buruzko kuriositatea, eta, bereziki, balentria hark bere garaian izan zuen eraginari, baina baita ere gaur egun garen horretan izan duen eraginari buruzko jakin-nahia piztu nahi du. Euskal itsasgizona eta lehenengo zirkumnabigazioa aitzakia eta heldulekua dira aldi berean, bai atzera begira jartzeko eta baita etorkizunera proiektatzeko ere".

Olanoren hitzetan "gauza gutxi dakigu Elkanori eta lurraren inguruko lehen itzuliari buruz", eta horregatik Fundazioaren lehen ahalegina "lan akademikoa bultzatzea" eta "ikerketa historikoan sakontzea" izango da. Era horretan, oinarri zientifiko sendo batekin garatu ahal izango dira Fundazioak aurreikusita dituen proiektuak.

Horren harira, Fundazioak doktoretza tesiak abian jartzea sustatu du EHUrekin, eta baita Elkano Katedra ere Montrealgo unibertsitatean, Etxepare Institutuarekin lankidetzan. Horrez gain, 2019. urtean zehar, euskaldunei eta zirkumnabigazioari buruzko nazioarteko kongresua antolatuko du, inguruko kultura eragileekin lankidetzan. Elkano pentsamendu eskola ere abian jarriko da; espazio horren helburua izango da egungo gizartearen balioei buruz hausnartzea eta kultura zein giza garapena bermatzeko bere funtzioaz gogoeta egitea.

Ezagutza akademikoa ezagutzera emateko eta gizartera zabaltzeko Elkano Fundazioak hainbat ekintza sustatuko ditu: ipuin edo aldizkarien argitaratzea, mintegiak, dokumentalak, hezkuntza zentroetarako produktu pedagogikoak diseinatzea eta ihes-gela sarea.

Itsasoari lotutako garapena

Arantxa Tapia sailburuak, bere aldetik, garapen ekonomikoari lotuta Fundazioak abian jarriko dituen proiektuez hitz egin du. Besteak beste itsasoari lotutako lanbideak berreskuratzeko ekimena da, zentro teknologiko eta lanbide heziketako zentroekin lankidetzan; helburua da "ezagutzaren transferentzia, ezagutza hori izan zuten pertsonetatik gaur egungoetara, gure nortasunaren zaintza eta aldaketarekiko irekiera uztartuz".

Itsasoaren zaintza izango da beste lan ardatzetako bat, “teknologiak, ezagutza-sareak eta sentsibilizazio nahiz kosta berreskuratzeko jarduerak barne hartuko dituzten proiektuak sustatuz”, esan du Tapiak.

“Elkanok lurraren inguruan burututako lehen itzuliak industria eta ontzigintza-teknologia eraldatu zituen, XVI. mende hasieran euskaldunak leku nabarmena izan genuelarik sektore horretan; Tapiak gogorarazi du lehen zirkumnabigazioak nazioarteko merkataritzan ere eragin handia izan zuela, eta gaineratu du “bost mende geroago, berrikuntza, nazioarteko merkataritza eta industria jarduera gakoak dira euskal ekonomiarentzat. Gure herrialdearen garapen ekonomikorako funtsezko elementuak dira”.

Gastronomiak eta elikadurak ere leku nabarmena izango du Elkano Fundazioak hurrengo hiru urteetan sustatuko dituen jardueren artean. Sailburuak azpimarratu duenez, Hazi eta Elika Fundazioekin elkarlanean jasangarritasunaren ikuspegitik landuko da arlo hau.

Elkano Fundazioak 280.000€-ko aurrekontua du 2019rako, bere egitura-gastuak jasateko. Sustatuko dituen proiektuen finantzazioari dagokionean, Fundazioak bi bide hauek erabiliko ditu: dagoeneko sortuak dauden programa publikoak eta urriaren 23ko 25/2018 Foru Dekretu bidezko finantzazio pribatua; aipatu dekretuaren arabera, Elkano Fundazioa mezenasgoko jarduera lehenetsia da, dagozkion zerga onurekin.

Elkano Fundazioaren borondatea da Elkanori buruzko ikuspegi desberdinak onartu eta integratzea; horrez gain, jakinmina sortu nahi du, itsasgizonari, espedizioari eta gaur egun arte heldu diren bere ondorioei buruz gehiago jakiteko gogoa.